

## PRENTSA-JAKINARAZPENA • 2022ko EKAINA

Erasmus+ KA2 elkarte estrategikoaren proiektu hau 2021eko apirilean abiarazi zen, eta honako izen hau du: 'Distance-Digital Teaching and Learning in the Post-Covid-19 Era - Di2Learn (Urrutiko Irakaskuntza eta Ikaskuntza Digitala Covid-19 garaian - Di2Learn). Eskolei urrutiko ikaskuntzako ekintza-plan propioa garatzen laguntzea du helburu. Proiektu honek modernizaziora eta eraldaketa digitalera eramango ditu inplikaturako eskolak, eta, horrela, irakasleak gaituko ditu, haien aukeren bitartez, hobetzeko eta birkualifikatzeko. Aukera horiek irakasleei urrutiko irakaskuntza diseinatzen eta ematen laguntzeko garapen profesionaleko ikastaroak ematean oinarritzen dira, eta, aldi berean, ikasleei urrutiko ikaskuntzan hasteko laguntza ematen zaie.

Partzuergoa proiektuaren bigarren emaitzan ari da lanean orain: **"DI2LEARN LEHEN LAGUNTZAILEEN TRESNEN KITA: PROFESIONALEENTZAKO, GURASOENTZAKO ETA IKASLEENTZAKO METODOLOGIA ETA GIDAK"**. Emaitza honen helburua hezitzaileei Covid-19 garaiko eskolen ekintza-plana garatzen laguntzea da, horrela haien eskola-praktiken modernizazioa eta eraldaketa digitala bermatzeko.

Lehenik eta behin, elkarteak oso erabilgarria izan daiteken **DISTANTZIAZ IKASTEKO GLOSARIO** bat egin du, irakasleen esku dagoen tresna berritzaile bat, modu zabal eta desberdinean erabiltzen diren terminoak ulertzen lagunduko diona. Termino horiek, gehienetan, esanahiari buruzko nahasmendua sor dezakete eta. Glosario horretan 131 termino eta esamolde komun jasotzen dira. Nazio-mailan, bazkide guztiek proiektuaren xede-taldean parte hartu dute zirriborroa berrikusteko eta hobetzeko, eta, horrela, bi bertsio egin dituzte: bata alfabeto-hurrenkeran idatzita, eta bestea 5 arlotan banatuta ("Gela", "Azpiegitura", "Alfabetatze mediatikoaren funtsezko terminoak", "Multimedia/Komunikazioa" eta "Tresnak"). Material horiek online daude eskuragarri elkartearen hizkuntza guztietan: <https://di2learn.eu/io2-triple-first-aid-di2learn-tool-kit/>

Ondoren, bazkideak honako hauetan hasi ziren lanean:

- URRUTIKO IKASKUNTZAKO METODOLOGIA bat ETA URRUTIKO IKASKUNTZAKO KIT bat, irakasleei eta eskolei urrutiko jardueren antolaketan, kudeaketan, jarraipenean eta ebaluazioan laguntzeko.
- Gurasoentzako eta ikasleentzako JARRAIBIDEAK sortzea, urrutiko ikaskuntzan laguntzeko.

Proiektuko Emaitza (PE) hau amaitzeko hurrengo urratsak 1) DI2LEARN LAGUNTZA-BANKUA garatzea izango dira. Hau da, PODCASTAK. Proiektuaren xede-taldeak gidatzeko bideo laburren serieak, prozeduraren urratsez urratseko garatzea erkusteko, hartu beharreko erabakiak eta abar azalduko dituztenak, eta 2) irakasleentzako garapen profesionaleko ikastaro bat antolatzea, bai eta gurasoentzako eta ikasleentzako tailerrak ere, DI2LEARN ENBAXADORE-SUSTATZAILE-MENTORE bihurtzeko.

Xehetasun gehiago aurki gure web orrian eta sare sozialetan proiektuaren inguruan!

**Honako hauek osatzen dute Di2Learn partzuergoa** [SPOLECZNA AKADEMIA NAUK](#) (Koordinatzailea), [PCG](#), [EMPHASYS](#), [TXORRIERI](#), [STEP BY STEP](#), [EUROED](#) eta [EUROPEAN DIGITAL LEARNING NETWORK](#).



[www.di2learn.eu](http://www.di2learn.eu)



[di2learn.info@gmail.com](mailto:di2learn.info@gmail.com)



[@Di2learn2021](#)



[@di2learn](#)

